

OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA ASANBLADA	
Asanblada zk.: 2	Data: 2023-09-26
	Ordua: 18:00-19:00
	Tokia: Udaletxeko bilera gela
Gai ordena <ul style="list-style-type: none"> • Sarrera eta bilera kokatzea • Kide berrien aurkezpena • Oñatiko Emakumion kontseiluaren ekarpenen gaineko itzulera. • Hurrengo bilera adostea • Galdera eta eskaerak 	

1. Sarrera eta bilera kokatzea

Hamabi kontseilukideetatik bederatzita bertaratu dira bilerara. Bertan dira, kontseiluaren lehendakaria eta idazkari lanak egingo dituen arduradun teknikoa. Kontseilukideen gehiengoarekin, bileraren gai ordena birpasatu, eta hasiera eman zaio bilerari.

2. Kide berrien aurkezpena

Kontseilukide izateko eskaera berri bat aurkeztu da 2023ko irailean, eta Alkate Dekretu bidez onartuko da datozen egunetan.

Horrez gain, udalbatzaren kidegoaren aldaketarekin, alderdi politikoetako ordezkariak izango dira aurrerantzean: Izaro Elorza Arregui, Anik Zubizarreta Arturo eta Itziar Alonso Aguirre.

3. Oñatiko Emakumion kontseiluaren ekarpenen gaineko itzulera

Oñatiko emakumion kontseiluak eginiko proposamen taularen gaineko hasierako itzulera egin da.

Hauek dira mahai gainean dauden proposamenak, eta udalak gai bakoitzaren gainean bileran adierazitakoa:

proposamen zenbakia - nº propuesta	identifikatutako BEHARRA - necesidad detectada*	PROPOSAMENA - propuesta	Udalaren itzulera
P001	herritar guztien errolda eskubidea bermatzea // Garantizar el empadronamiento a todas las oñatiarras	prozedura bat ezartzea / establecer un procedimiento	Oinarrizko prozedura bat adostu dela adierazita da



P002	ZAINZAREN auzian urratsak ematen joan // ir dando pasos en relación al tema de CUIDADOS	EGOERAREN AZTERKETA: Zaintza diagnostikoa, elkarzabalekin lankidetzan. Nola ari dira antolatzen adinekoen zaintza lanak Oñatin? / análisis de la situación-diagnóstico, en colaboración con elkarzabal	Hurrengo asanbladarako gai honen gaineko erantzun bat emango dela adierazi da.
P003		ERREFERENTZIAZKO ESPAZIOA. Zaintzaren behatokia sortu: zaintzaileentzat aholkularitza eta familiekin bitartekaritza / Un espacio de referencia; asesoría para las cuidadoras y acompañamiento a las familias	
P004		ALTERNATIBAK SORTZEA. Bidebarrarekin elkarlana zein puntutan dago? Horri jarraipena eman dakioke? // Crear alternativas. Cómo está el trabajo con bidebarri?	
P005		SENTSIBILIZAZIOA. Informazioa zabaldu eta familien sentibilizaziorako // sensibilizacion	
P006		Aztertzea zein funtzio jokatu duen emakumion etxiak. (Emakumion etxiaren eraikitze prozesuan) // analizar qué función cumplirá la casa de las mujeres	
P007	INDARKERIA MATXISTARI aurre egiten dioten emakumeen arreta hobetzea // mejorar la atención a mujeres que enfrentan violencia	Prozesuen gaineko asebetetzea neurtzea, koordinazioa, arreta eta zerbitzuak baloratzeko, eta erronkak zehazteko // medir la satisfacción de los procesos; coordinación, atención y servicios	Gizarte zerbitzuetara bideratuta, hasierako baloraziorako
P008	GURASO BAKARREN inguruko esku-hartze ildoak identifikatu // Identificar líneas de trabajo con familias monomarentales	Beharren azterketa bat egin (Jabetze eskolatik bideratutako talde baten bitartez egin daiteke?) // analizar necesidades	Kontseiluari eskatu zaio lan ildo hau gehiago definitu dezan
P009	Diru laguntzetan berdintasun klausulak txertatzea // incorporar cláusulas de igualdad en las subvenciones.	Azterketa bat egitea diru laguntzen genero inaktuaren inguruan eta diru laguntzetan txertatzen diren berdintasun klausulen eta hauen jarraipenaren inguruan // realizar un análisis sobre las cláusulas de igualdad en las subvenciones y el impacto de las ayudas.	Kontu-hartzaitzara bideratu da, honek hasierako balorazioa egin dezan.

P010	HAPO prozesuaren jarraipena egitea //Seguimiento del proceso del PGOU	HAPOaren prozesuaren gaineko Informazioa ematea kontseiluari eta Projecta Urbes-ek aurrerakinean eginiko lana egungo dokumentuan nola islatu den azaltzea. // Informar sobre el proceso y sobre el trabajo de proyecta urbes.	Hirigintza arloko arduradun politikoak, kontseiluak adierazitako kezka erantzun bat emateko bilera bat egitea proposatzen du.
-------------	---	---	---

4. Hurrengo bilera adostea

Hurrengo asanblada irekia abenduaren 12an izango da, asteartea, 18:30etan. Bilera horretan, excel taulan jasotako proposamenen gaineko jarraipena egingo da, eta 2024 urterako departamendu bakoitzetik ezartzen diren erronkak partekatuko dira.

Tartean, bi bilera egingo ditu lan taldeak. Horien edukiak adostu dira.

5. Galdera eta eskaerak

Ez dagoenez bestelako galdera edo eskaerarik, bilera amaitutzat ematen da 19:00etan.